III. ERANSKINA

HAUTATUTAKO PROIEKTUAREN FITXA TEKNIKOA (PUBLIZITATEA EMATEKO)

LAGUNTZA MODALITATEA	DOKTORATU AURREKO LANGILE IKERTZAILE. “IKERTALENT 2026”
PROIEKTUAREN KODEA	P3
TITULUA	EUSKAL HERRIKO KOSTALDEKO KARBONO URDINAREN HUSTULEKUAK: KLIMA-ALDAKETAREN ARINTZERAKO ETA TOKIKO EGOKITZAPENERAKO INPLIKAZIOAK
ZENTROA	AZTI SUKARRIETA (PASAIA BALORA DAITEKE)
SAILA/ZUZENDARITZA/ARLOA	ITSAS IKERKETA. ALDAKETA GLOBALA ITSAS EKOSISTEMETAN ARLOA.
IKERKETA - TALDEA	ALDAKETA GLOBALA ITSAS EKOSISTEMETAN
PROIEKTUKO TUTOREA(K)	MIREIA VALLE DR. ETA GUILLEM CHUST DR.
PROIEKTUAREN LABURPENA	DOKTOREGO-TESIAREN PROIEKTUAREN HELBURU OROKORRA DA EUSKAL KOSTALDEKO KARBONO URDINEZKO EKOSISTEMEK KLIMA-ALDAKETA ARINTZEKO EGITEN DUTEN EKARPENA ULERTZEA, HURBILKETA ESPAZIALAK, BIOGEOKIMIKOAK ETA PREDIKTIBOAK INTEGRATUZ, EKOSISTEMA HAUEN EGUNGO DINAMIKA, ETORKIZUNEKO BILAKAERA ETA KUDEAKETA-ESTRATEGIA DESBERDINEN INPLIKAZIOAK EBALUATU AHAL IZATEKO. IKERKETAREN ARDATZA ITSAS PADURAK ETA NANOZOSTERA NOLTEI ESPEZIEKO ITSASBELARRAK IZANGO DIRA, EUSKAL KOSTALDEAN DAUDEN KARBONO URDINEZKO HUSTULEKU NAGUSIAK. TELEDETEKZIO-TEKNIKAK, INFORMAZIO GEOGRAFIKOKO SISTEMAK (GIS), ANALISI BIOGEOKIMIKOAK ETA MODELIZAZIO EKOLOGIKOA INTEGRATUZ, EKOSISTEMA HORIEN KARAKTERIZAZIO ESPAZIALA, HAIEN ERRESERBEN KUANTIFIKAZIOA ETA KARBONOA METATZEKO TASAK AZTERTUKO DIRA, BAITA EKOSISTEMA HORIEK ARINTZEKO GAITASUN HISTORIKOAREN EBALUAZIOA ERE. PROIEKTUA BI FASE OSAGARRITAN EGITURATZEN DA. LEHENENGOA KARBONOA BAHITU ETA BILTEGIRATZEKO DINAMIKA KARTOGRAFIATU, MONITORIZATU ETA EBALUATZERA BIDERATUTA EGONGO DA, HONETARAKO GAUZATZEN ARI DIREN ESKUALDEETAKO ETA EUROPAKO PROIEKTUETATIK DATORREN INFORMAZIOA INTEGRATUKO DU. BIGARREN FASEA ESPEZIEEN DISTRIBUZIO-MODELOAK (SDM, BERE INGELESEZKO AKRONIMOAGATIK: SPECIES DISTRIBUTION MODELS) GARATZEAN OINARRITUKO DA, KARBONO URDINEKO EKOSISTEMA HORIEN ETORKIZUNEKO BILAKAERA ALDAKETA GLOBALEKO HAINBAT AGERTOKITAN PROIEKTATZEKO, ITSAS MAILAREN IGOERA ETA BEROTZE KLIMATIKOA BARNE HARTUTA, BAITA ARINTZEKO AHALMENA OPTIMIZATZERA BIDERATUTAKO KUDEAKETA-ESTRATEGIEN EBALUAZIOAN ERE. EMAITZAK LAGUNGARRI IZANGO DIRA KARBONO URDINEKO EKOSISTEMEI BURUZKO EZAGUTZA ZIENTIFIKOAN AURRERA EGITEKO, ETA KLIMA-ALDAKETAREN EGOKITZAPEN- ETA ARINTZE-NEURRIAK BIDERATZEN LAGUNDUKO DUTE.
BESTELAKO INFORMAZIOA	SARTZEKO TITULAZIOAK: INGURUMEN ZIENTZIAK, BIOLOGIA ZIENTZIAK, ITSAS ZIENTZIAK, FISIKA EDO ZIENTZIA ESPERIMENTALEN ETA NATURALEN ADARREKO ANTZEKO BESTE BATZUK.ADIERAZITAKO EDOZEIN ALORRETAKO MASTER TITULUA IZATEA BALORATUKO DA. PROIEKTUA GARATZEKO, ESKUALDEKO ETA EUROPAKO PROIEKTUETAN SORTUTAKO DATU-BASEAK ERABILIKO DIRA. NAZIOARTEKO ZEIN ESTATU MAILAKO GARRANTZIKO IKERKETA-ZENTROETAN EGONALDIAK EGITEA AURREIKUSTEN DA, AIPATUTAKO PROIEKTUEN KONTSORTZIOETAKO KIDE ETA KARBONO URDINEKO EKOSISTEMEN ESPAINIAKO ADITUEN TALDEKO PARTAIDE DIRENETAN.
HARREMANETARAKO DATUAK	MVALLE@AZTI.ES / GCHUST@AZTI.ES